# BILBAO HELDUAK
## Ikastaroaren deskripzioa & autoebaluazioa

# 1. Maila: Oinarrizkoa

## Ikastaroaren deskripzioa
Hau helduentzako ditugun zortzi mailetatik lehenengoa da. Hiru hiruhilekotan banaturik dagoen 120 ordutako ikastaroa da. Ikastaro honen maila Europar Marko Amankomunak zehazten duen **A1** mailaren baliokidea da. Behekaldean zehazten den 'Ahal dut' zerrendan zehazten direnak zein testuliburuan aurkituko dituzun ariketak A1 mailari dagozkio.

| | | | |
|---|---|---|---|
| *3. Maila* | *Ertaina* | B1 | 120 ordu |
| *2. Maila* | *Ertain-aurrekoa* | A2 | 120 ordu |
| ***1. Maila*** | ***Oinarrizkoa*** | **A1** | **120 ordu** |

Ikastaro honetan oinarrizko ingelesa lantzen da, batez ere, lau trebetasunetan oinarriturik: speaking, writing, listening eta reading. Era berean, **gramatika**, **hiztegia** eta **ahoskera** landuko dira.
Ikastaro honetan autoikaskuntzari eta ikaslearen independentziari garrantzia handia ematen diogu: astero etxekolanak izango dituzu eta liburutegi, internet eta, orohar, klasetik kanpo aurki daitekeen beste edozein ingeles iturriren erabilpen egokia egitera animatuko zaitugu. Ikastaro honen inguruan argibide gehiago nahi izanez gero, eskatu harrera-tokian **metodologia adierazpena**.
Ikastaroan zehar etengabe ebaluatua izango zara, bai azterketa txikien bidez, bai irakaslearen monitorizazio eta behaketaren bidez. Aldizka, irakasleak zure errendimenduaren inguruko informazioa emango dizu. Ikastaroa amaitzen duten ikasle guztiek bere maila egiaztatzen duen British Councileko ziurtagiria jasoko dute.

## Auto-ebaluazioa
Jarraian zehazten den 'egin ahal dut' zerrenda erabili ikastaroaren zehar egindako aurrerapena ikusteko. Eginzazu markatxo bat lehen laukitxoan aipatzen den ataza egiteko laguntza behar baduzu, eta bigarrenean, ataza bera egiteko laguntzarik behar ez duzunean.

| | SPEAKING | | Laguntza behar dut | Nire kabuz egiteko gai naiz |
|---|---|---|---|---|
| SPEAKING | S1 | Nire buruaren inguruko informazioa emateko gai naiz (helbidea, herritartasuna, adina, familia...) etc...) | | |
| | S2 | Non bizi naizen deskribatzeko gai naiz. | | |
| | S3 | Nire burua aurkezteko gai naiz eta agurtzeko oinarrizko espresioak erabiltzen ditut. | | |
| | S4 | Denbora azaltzeko gai naiz, 'datorren astean', pasa den ostiralean', 'azaroan' edota 'hiruretan' bezalako esaldiak erabiliz. | | |
| | S5 | Galdera sinpleak egiteko eta erantzuteko gai naiz, eta beharrezkoak zaizkidan edota ezagunak zaizkidan gaietan solasaldiak hasteko eta erantzuteko gai naiz. | | |
| | S6 | Modu sinplean ulertarazteko gai naiz, baina nire solaskidearen trebetasunaren baitan nago esaldiak motelago errepikatzeko, gauzak beste modu batean esateko edota nahi dudana esateko bere laguntza izateko. | | |
| | S7 | Erosketa sinpleak egiteko gai naiz keinuez lagundu ahal badut. | | |
| | S8 | Zenbakiak, kopuruak, salneurriak eta denbora kudeatzeko gai naiz.. | | |
| | S9 | Jendeari gauzak eskatu eta eskaini ahal dizkiet. | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | S10 | Jendeari non bizi den, nor ezagutzen duten, zer duten etab... galdetu ahal diet, eta galdera horiek erantzun ahal ditut niri poliki eta argi galdetzen badizkidate. | | |
| WRITING | WRITING | | | |
| | W1 | Nire datu pertsonalekin formulario bat betetzeko gai naiz (adibidez: lana, adina, helbidea, gustuak...) | | |
| | W2 | Zoriontzeko txartelak idazteko gai naiz, hala nola, urtebetze txartelak. | | |
| | W3 | Postal bat idazteko gai naiz, adibidez, oporrak zoriontzekoa da. | | |
| | W4 | Norbaiti non nagoen edota non gera gaitezkeen esateko nota bat idazteko gai naiz. | | |
| | W5 | Nire buruari buruzko esaldi eta perpaus sinpleak idazteko gai naiz, hala nola, non bizi naizen, zer egiten dudan... | | |
| LISTENING | LISTENING | | | |
| | L1 | Nire solaskidea ulertzeko gai naiz, poliki hitzegiten badu, ahoskera zaintzen badu, eta esandakoa asimilatzeko etenaldiak egiten baditu. | | |
| | L2 | Oinez zein garraiobide publikoak erabiliaz Xetik Yra iristeko aginduak ulertzeko gai naiz. | | |
| | L3 | Kontuz eta poliki adierazitako aginduak ulertzeko gai naiz, eta ohar sinpleak jarraitzeko gai naiz. | | |
| | L4 | Zenbakiak, salneurriak eta denbora ulertzeko gai naiz. | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| READING | READING | | Hau egiteko laguntza behar dut | Hau nire kabuz egiteko gai naiz |
| | R1 | Prentsan azaltzen den jendearen inguruko informazioa ulertzeko gai naiz (helbidea, adina...) | | |
| | R2 | Posterretan edota ekitaldien zerrenda batean kontzertu edo pelikula bat aurkitzeko gai naiz, non izango den eta zein ordutan hasiko den identifikatuz. | | |
| | R3 | Galdetegi bat (sarrera eskatzeko formularioak, hotelean geratzeko erregistroa...) nire buruaren inguruko informazio garrantzitsuena emateko (izena, abizenak, jaioteguna, herritartasuna...) adina ondo ulertzen dut. | | |
| | R4 | Egunero aurkitzen ditudan seinaletan hitz eta esaldiak ulertzeko gai naiz, hala nola, 'geltokia', 'aparkalekua', 'ez aparkatu', 'ez erre', 'ezkerrean mantendu'... | | |
| | R5 | Informatika programa bateko funtziorik nagusienak ulertzeko gai naiz, hala nola, 'inprimatu', 'gorde', 'kopiatu'... | | |
| | R6 | Idatzizko ohar txikiak jarraitzeko gai naiz (adibidez, Xetk Yra nola iritsi). | | |
| | R7 | Postaletan idatzitako mezu txikiak ulertzeko gai naiz, adibidez, oporretako postaletan. | | |
| | R8 | Eguneroko egoeretan, kideek edota lagunek utzitako idatzizko mezu laburrak ulertzeko gai naiz, adibidez, 'lauretan bueltatuko naiz' bezalakoak. | | |
| ESTRATEGIAK | ESTRATEGIAK | | | |
| | ST1 | Zerbait noiz ulertzen ez dudan esan dezaket. | | |
| | ST2 | Norbaiti esandakoa errepikatzeko esan ahal diot. | | |
| | ST3 | Norbaiti mantsoago hitzegiteko eska diezaioket. | | |

Informazioa hartuta Swiss National Science ELPetik. Model 1.2000